ORDEN DE LA CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE POR LA QUE SE ACUERDA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE CARÁCTER GENERAL CON EL OBJETO DE REGULAR EL BIENESTAR DE LOS ANIMALES PARTICIPANTES EN ESPECTÁCULOS PÚBLICOS O ACTIVIDADES RECREATIVAS DE LA CAE QUE NO SE ENCUENTREN YA REGULADOS.

La Dirección de Agricultura y Ganadería ha solicitado el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de regular la preparación, organización y desarrollo de los espectáculos con animales domésticos y silvestres en cautividad que no cuentan con regulación propia y de las actividades relacionadas con los mismos en la CAPV, para que estos se realicen evitando cualquier sufrimiento para los animales participantes.

Con carácter previo a la iniciación, se publicó en el tablón electrónico de anuncios de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi la resolución del Director de Agricultura y Ganadería por la que se sometió a consulta a la ciudadanía por plazo de 15 días la elaboración de una disposición de carácter general con el objeto referido anteriormente, en cumplimiento del artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (LPEDCG).

Esta ley en su artículo 13 recoge los contenidos de la orden de inicio y que son los siguientes:

a) Objeto y finalidad de la norma:

El artículo 27 de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos establece en su apartado 2 que los reglamentos y las autorizaciones de los espectáculos con animales tendrán por objeto regular la preparación, organización y desarrollo de los citados espectáculos y de las actividades relacionadas con los mismos.

Así, la finalidad de la disposición normativa a cuya elaboración se da inicio mediante la presente orden, es dar cumplimiento al mandato establecido en la ley citada en el párrafo anterior y su objeto es desarrollar reglamentariamente el marco jurídico para la protección de los animales domésticos y silvestres en cautividad que participen en espectáculos y actividades recreativas.

Por tanto, la necesidad de crear una nueva norma para regular esta materia, viene establecida por imperativo legal.

b) Viabilidad jurídica y material de la norma:

La norma que se va a iniciar es viable jurídica y materialmente; da cumplimiento a un mandato legal, respeta el procedimiento establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General y la Ley 7/1981, de 30 de junio de Gobierno, en virtud de la cual adoptará la forma de decreto siguiendo lo dispuesto en su artículo 18.c) según el cual, corresponde al Gobierno *aprobar mediante Decreto los Reglamentos para el desarrollo y ejecución de las Leyes emanadas del Parlamento Vasco, así como los de las Leyes del Estado cuando la ejecución de la competencia corresponda a la Comunidad Autónoma en virtud del Estatuto de Autonomía, o por delegación o transferencia.*

Respecto de la competencia, el artículo 148.7 de la Constitución Española establece que las CCAA podrán asumir competencias en materia de agricultura y ganadería de acuerdo con la ordenación general de la economía, y el artículo 10.9 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco atribuye la competencia exclusiva a la CAPV en estas materias.

En cuanto a la competencia frente a los Territorios Históricos, es necesario diferenciar las reconocidas expresamente a los Territorios Históricos en el Estatuto de Autonomía del País Vasco (EAPV) que son inalterables por el legislador y las competencias atribuidas a los Territorios Históricos en virtud del Art. 37.3 f) EAPV plasmadas en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que conforman el ámbito de libre decisión.

Por otra parte, el artículo 6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunidades y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, dispone que es de la competencia de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma la legislación y la ejecución en todas aquellas materias que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se reconozcan o atribuyan en dicho Estatuto, la presente Ley u otras posteriores, a los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

Finalmente, el Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos atribuye al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente la función de "*Promoción y ordenación agrícola y ganadera*".

c) Análisis de la repercusión de la norma en el ordenamiento jurídico.

El proyecto de decreto a que se da inicio en la presente orden, no supone ninguna derogación normativa, su labor es complementar la regulación vigente respecto la protección de los animales que participen en espectáculos o actividades recreativas de la CAE de manera que se contribuya a asegurar el bienestar de los mismos.

d) Dosier.

Se ha emitido un informe de ausencia de relevancia desde el punto de vista del género y se ha remitido a Emakunde, que, en su respectivo informe lo corrobora así.

e) Incidencia presupuestaria.

La norma que se encuentra en proceso de elaboración carece de incidencia presupuestaria. Su labor es completar la regulación existente respecto a la preparación, organización y desarrollo de espectáculos que cuenten con la participación de animales.

f) Tramites e informes.

El proyecto de decreto que se inicia seguirá los siguientes trámites:

- Se someterá al trámite de "audiencia" remitiendo la norma a las organizaciones representativas afectadas, que son las enumeradas en el apartado f) de la presente Orden.

- Se dará participación a las diputaciones forales y ayuntamientos, por ser administraciones afectadas por la norma a elaborar.

- Se someterá a informe del Departamento de Seguridad, en concreto a la Dirección de Juego y Espectáculos.

- Respecto a la tramitación a la Unión Europea, al no constituir convocatoria de ayudas, no será necesario notificar ni solicitar autorización.

- Se solicitará informe de control del Consejo Económico y Social Vasco, en aplicación de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco (artículo 3).

- Se recabará informe de la Oficina de Control Económico: En aplicación de la Ley de control económico y contabilidad de la CAE (art.25 y ss.), aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

- La norma se someterá al dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 3, párrafo 1 apartado c) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

- Control de política lingüística: En aplicación del artículo 2 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

- Control de la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales.

  Por último, y una vez finalizado los trámites e informes a los que se ha de someter la norma y que acaban de relatarse, se finalizará el procedimiento con la aprobación final por el Consejo del Gobierno Vasco y su posterior publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, en aplicación del artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno

g) Sujetos y organizaciones más representativas afectadas. Dado que una estimación de los sujetos y organizaciones más representativas afectadas se estima complicada, se publicará el proyecto de norma a través de un anuncio en el BOPV para su puesta en conocimiento a los efectos de dar cumplimiento a los trámites de audiencia y exposición pública.

h) Técnica de traducción: Para cumplir con lo dispuesto en el artículo 5 de la LPEDCG, la disposición normativa cuyo procedimiento de elaboración se inicia a través de esta orden y conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la LPEDCG, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción.

   Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la LPEDCG, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública

i) Órgano instructor. Que se designa como órgano instructor del procedimiento administrativo que conlleva la elaboración y tramitación de la norma cuyo inicio se acuerda mediante la presente Orden, a la Dirección de Servicios.

j) Plan normativo. El proyecto de decreto no se encuentra incluido en el Plan anual normativo del Gobierno Vasco del año 2023, pero su elaboración es oportuna de cara a garantizar el bienestar de los animales que participen en espectáculos que tengan lugar en la CAE.

Que el apartado primero del artículo 12 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone que “el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará

por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen".

Que es el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, el competente en razón de la materia en virtud de las competencias atribuidas en el Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, así como en el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

En virtud de todo lo antedicho

RESUELVO:

PRIMERO: acordar el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de garantizar el bienestar de los animales que participen en espectáculos o actividades recreativas dentro de la CAE, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

SEGUNDO: materializar, el procedimiento de elaboración de la norma, de conformidad con el marco jurídico definido en la citada Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, así como de conformidad con los principios referidos en la parte expositiva de la presente Orden.

ARANTZA TAPIA OTAEGUI,
CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

AGINDUA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO PROZEDURA HASTEA, EAE-KO JENDAURREKO IKUSKIZUNETAN EDO JOLAS-JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN BAINA ORAINDIK ONGIZATEA ARAUTU GABE DUTEN ANIMALIEN ONGIZATEA ARAUTZEKO.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak xedapen orokor bat egiteko prozedura hasteko eskatu du, EAEn araudi propiorik ez duten etxe-abereekin eta itxian atxikitako basabereekin egiten diren ikuskizunen eta horiekin zerikusia duten jardueren prestaketa, antolaketa eta garapena arautzeko, ikuskizun eta jarduera horietan parte hartzen duten animaliek sufrimendurik jasan ez dezaten.

Prozedura hasi aurretik, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpen bat argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren iragarki-taula elektronikoan, zeinaren bidez herritarrei 15 egunez kontsulta egin baitzitzaien xedapen orokorra egin aurretik, arestian aipatutako helburuarekin, *Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 2022ko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen* 11. artikulua betez.

Lege horrek, 13. artikuluan, hasteko aginduaren edukiak jasotzen ditu. Hauek, alegia:

k) Arauaren gaia eta helburua:

2022ko ekainaren 30eko 9/2022 Legeak, Etxeko Animaliak Babestekoak, 27. artikuluaren 2. apartatuan ezartzen duenez, animaliekin egiten diren ikuskizunen erregelamenduen eta baimenen xedea izango da aipatutako ikuskizunen eta horiekin lotutako jardueren prestaketa, antolaketa eta garapena arautzea.

Horrela, bada, agindu honen bidez hasiarazi nahi den arau-xedapenaren helburua aurreko paragrafoan aipatutako legean ezarritako agindua betetzea da, eta haren gaia da erregelamendu bidez garatzea ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten etxe-abereak eta itxian atxikitako basabereak babesteko esparru juridikoa.

Beraz, gai hau erregulatzeko arau berri bat ezartzeko beharra legearen beraren aginduz sortzen da.

l) Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala:

Hasiko den araua bideragarria da juridikoki eta materialki; lege-agindu bat betetzera dator, *Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 2022ko ekainaren 30eko 6/2022 Legean* eta *Jaurlaritzari buruzko 1981eko ekainaren 30eko 7/1981 Legean* ezarritako prozedura errespetatzen du, eta, azken horren arabera, dekretu forma hartuko du, 18.c) artikuluan xedatzen baitu Jaurlaritzari dagokiola dekretu bidez onartzea Eusko Legebiltzarrak emandako legeak garatzeko eta betearazteko erregelamenduak, bai eta estatuko legeenak ere eskumena gauzatzea Autonomia Erkidegoari dagokionean, Autonomia Estatutuaren arabera edo eskuordetze edo transferentzia bidez.

Eskumenari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 148.7 artikuluak dio autonomia-erkidegoek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko eskumenak hartu ahal izango dituztela beren gain, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.9 artikuluak EAEri esleitzen dio eskumen esklusiboa arlo horietan.

Lurralde historikoen aurreko eskumenari dagokionez, bereizi egin behar dira, batetik, EAEko Autonomia Estatutuan lurralde historikoei berariaz aitortutako eskumenak —legegileak ezin ditu horiek aldatu—, eta, bestetik, EAEko Autonomia Estatutuaren 37.3.f) artikuluaren arabera lurralde historikoei esleitutako eskumenak —*Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legean* jasotakoak—, legelariaren erabaki askeko esparrua osatzen dutenak.

Bestalde, 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legean *(Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoa)* ezarritako eskumen-araubideari dagokionez, 6. artikuluak xedatzen du EAEko erakunde komunen eskumena dela Autonomia Estatutuaren arabera erkidego honi dagozkion gai guztiei buruz legeak egitea edo lege horiek betearaztea, non eta gai horiek, estatutu horretan, aipatutako legean edo ondorengo lege batzuetan, ez zaizkien lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen.

Azkenik, lehendakariaren 2020ko irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari esleitzen dizkio «nekazaritza eta abeltzaintza sustatzeko eta antolatzeko egitekoak».

m) Arauak ordenamendu juridikoan duen eraginaren analisia.

Agindu honen bidez abiarazten den dekretu-proiektuak ez dakar inolako arau-indargabetzerik; haren helburua da EAEko ikuskizunetan edo jolas-jardueretan parte hartzen duten animaliak babesteari buruz indarrean dagoen araudia osatzea, animalien ongizatea bermatzen laguntzeko.

n) Dosierra.

Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duela adierazten duen txosten bat egin da, eta «Emakunde»-ri bidali zaio. Emakundek hala berresten du bere txostenean.

o) Aurrekontuetan duen eragina.

Prestatzen ari den arauak ez du eraginik aurrekontuetan. Eginkizuna du animaliek parte hartzen duten ikuskizunak prestatzeko, antolatzeko eta garatzeko dagoen araudia osatzea.

p) Izapideak eta txostenak.

Hasiko den dekretu-proiektuak izapide hauek izango ditu:

- Entzunaldi-izapidea egingo da, eta araua bidaliko zaie eragindako antolakunde esanguratsuenei, agindu honen f) apartatuan zerrendatutakoei, hain zuzen.

- Foru-aldundiei parte hartzeko aukera emango zaie, egin beharreko arauak eragindako administrazioak direlako.

- Segurtasun Sailak txostena egin beharko du arauaren gainean; zehazki, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak.

- Europar Batasunerako izapideei dagokienez, laguntza-deialdirik ez dagoenez, ez da beharrezkoa izango ez jakinaraztea, ezta baimena eskatzea ere.

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen kontrola, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legea aplikatuz (3. artikulua).

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eskatuko da, *Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea* betez (25. artikulua eta hurrengoak). 2017ko urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen lege hori *(Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretua)*.

- Araua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaliko zaio, irizpena eman dezan, *Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2004ko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen* 3.1.d) artikuluan xedatutakoa betez.

- Hizkuntza-politikaren kontrola, *Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen 2012ko azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren* 2. artikulua betez.

- Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren kontrola.

  Azkenik, arauak bete behar dituen eta azaldu berri diren izapideak eta txostenak egin ondoren, prozedurari amaiera emango zaio Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak azken onarpena eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean, 1981eko ekainaren 30eko 7/1981 Jaurlaritzaren Legearen 18. artikulua betez.

q) Eragindako subjektu eta antolakunde esanguratsuenak. Eragindako subjektu eta antolakunderik esanguratsuenen estimazioa egitea zaila dela uste denez, arau-proiektua iragarki baten bidez argitaratuko da EHAAn, haren berri emateko, entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapideak betetze aldera.

r) Itzulpen-teknika: Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluari eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 14.5 artikuluari jarraituz, agindu honen bidez abiarazten den arau-xedapenaren testua ele bitan idatziko da, bi hizkuntzen berdintasuna bermatuz hizkuntza bakoitzaren bertsioa egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

   Era berean, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 27.3 artikuluaren arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

s) Instrukzio-organoa. Zerbitzu Zuzendaritza izendatzen da agindu honen bidez erabakitzen den araua prestatzea eta izapidetzea dakarren administrazio prozeduraren instrukzio organo.

t) Araugintza-plana. Dekretu-proiektua ez dago sartuta Eusko Jaurlaritzaren 2023ko urteko araugintza-planean, baina hari ekitea egokia da EAEn egiten diren ikuskizunetan parte hartzen duten animalien ongizatea bermatzeko.

*Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 2022ko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak* 12. artikuluko lehen apartatuan xedatzen duenez, «xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da».

Kasu honetan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak du gaiaren gaineko eskumena, horrela ezartzen baitute Lehendakariaren 2020ko irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu,

ezabatu eta aldatzekoa eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoa) eta 2021eko otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa).

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA: Xedapen orokor bat egiteko prozedura hastea, EAEko ikuskizunetan edo jolas-jardueretan parte hartzen duten animalien ongizatea bermatzeko, *Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 2022ko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen* 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

BIGARRENA: araua egiteko prozedura egikaritzea, aipatutako *Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 2022ko ekainaren 30eko 6/2022 Legean* zehazten den lege-esparruarekin eta agindu honen azalpen-zatian aipatutako printzipioekin bat eginez.

ARANTZA TAPIA OTAEGUI,
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEKO SAILBURUA